

# Kreditu europarrerantz hurbiltzeko eredu estatistikoa. Psikologiako ikasketak aztergai

Xabier Isasi eta Nekane Balluerka  
EHUko irakasleak / UEUKideak

Europar Batasuneko goi-mailako hezkuntza-eremuaren eraketak Europako herrialdeetan lortutako titulazioen baliokidetasuna eta goi-mailako hezkuntza-sistemen kalitatea eta gardentasuna areagotzea bilatzen du. Helburu horiek lortzeko abiapuntua oraingo kreditu-sistemaren ordeza, ECTS (*European Credit Transfer System*) izeneko kreditu europarra erabiltzean datza. Lan honetan, Psikologia titulazioko ikasketa-plana oinarritzat harturik, egungo antolakuntza akademikotik ECTS kredituetan oinarritutako antolakuntzara hurbiltzeko gidatzat har daitekeen eredu estatistikoa garatzen da. Eredu horrek agerian uzten du europar sistemarekiko egokitzapenak iraultza bat suposatuko duela ikasleen jardueretan, irakasleen dedikazioan eta, oro har, antolakuntza akademikoaren alderdi guztietan.

The development of the European Higher Education System finds to increase the equivalence of the degrees obtained in different European countries and the quality and transparency of Higher Education Systems. The starting point to achieve such goals is to use the so called ECTS (*European Credit Transfer System*) credit system in place of the present credit system. Taking as a point of reference the degree of Psychology, in this work a statistical model that could be used to approach from the present academic management to a management based on ECTS credits is developed. This model makes it clear that the adjustment to European system will suppose a revolution in the activities of students, the work-time of teachers and, in general, in all the aspects of academic management.

Europar Batasuneko goi-mailako hezkuntza-eremuaren eraketarako Kreditu Europarra abiapuntu eta giltzarritzat har genezake. *Ezagueraren Europarako* bi-dean gizartearen garapena eta herritarren formazioa dira jorratu beharreko ildo nagusiak. Nazioarteko lehiakortasuna areagotzea, kalitate handiko hezkuntza-sistemak antolatzea eta graduako titulazioen baliokidetasuna dira, besteak beste, datozen urteotan Europar Batasuneko unibertsitateen erronkak.

Ingurumari horretan, *European Credit Transfer System* (ECTS) da ERASMUS programan erabili izan den prozedura, unibertsitateen arteko kredituen trukerako. Dagoeneko nahiko ezaguna da eta unibertsitateetako dokumentazioen artean erreferentzi ugari aurki dezake irakurleak. Oro har, Europar Batasuneko kredituen baliokidetasunak helburu bikoitza dakar. Batetik, titulazioei begira, oinarrizko titulazio-mapa ezartzea Europar Batasuneko estatuetarako. Eta, bestetik, beharbada aurrekoa baino lehenago, ikasleen mugikortasuna areagotzea. Ikasketen baliokidetasun-sistema bilatu nahi da, beraz.

Neurri batean, Europar Batasuneko ikasle unibertsitarioena da baliokidetasun-sistema horren eskakizuna. Eta, hein batean ere, ikasleengandik eurengandik hasten da egokitzapen-prozesua bera. Hori horrela, egin beharreko aldaketak eta egokitzapenak unibertsitateetatik bertatik hasten dira. Badira izan irizpide orokor batzuk, bai, baina ez dago, oraingoz, prozesua erraz lezakeen Europar Batasuneko araudi finkorik. Horrek esan nahi du unibertsitateen lanek eta ekarpenek garrantzi berezia daukatela. Horregatik, hain zuzen, unibertsitate gehienetan berriazko lan-taldeak antolatu dira eta ahalegin bereziak egiten ari dira Europar Batasuneko goi-mailako hezkuntza-eremuan nork bere leku bila. Gure unibertsitatea, UPV/EHU, ez dago prozesu horretatik kanpo.

Dauzkagun irizpideak dauzkagula, oraingo antolakuntza akademikitik bihurtziko eredu berrirako igarobidean urratsak egin behar ditugu. Urrats horiek egiteko unibertsitateko ikaslearen jarduera izango dugu ardatza. Ikuspegi horretatik, ECTS kreditu-sistemaren ezarpenak oraingo unibertsitatearen antolakuntza erabat berritzea dakar, aldaketa kualitatibo sakonak egitea, alegia. Europar Batasuneko unibertsitateak ikaslearen beharrezanetan erroturiko unibertsitatea izan behar du eta.

Horregatik, lan honetan, ECTS —ingeleszko akronimoa erabiliko dugu—, *ikaslearen jarduera akademikoan neurketa-unitate* gisa ulertzen dugu. *ECTS motako kredituak* ikasleak bere ibilbide unibertsitarioan dauzkan eginkizun guztiak biltzen ditu. Izatez, denbora-neurria da, ordu-kopurua, alegia. Tamalez, ez dago guztiz definiturik, horrek dakar kasuan kasu zehaztu eta egokitu beharra. Hori da, hain zuzen ere, lan honen xedea; UPV/EHUko Psikologia Fakultateko ikasketak oraingo kreditu-sistematik ECTS motako kreditu-sistemara egokitzea.

Oinarri horiek abiapuntu, Europako eremu unibertsitarioaren eraketan ikaslearen jarduera ezarri dugu xedetzat eta irizpide nagusitzat. Apurka-apurka, modu operatiboan, lanaren garapenaren haritik azalduko dugu, gure ikuspuntutz, zertan dautzan *ikaslearen jarduera* horiek. Ohar bakarra egingo dugu, *ikasleen jarduerak*, ikasturtearen iraupenean ikasketei dagokienez, aktibitate eta eginkizun guztiak beren baitan hartzen dituztela. Ikasleen eginkizunak eta aktibitateak dira, bada, hasierako erreferentzia ezinbestekoa eta bakarra.

Esanak esan, datorkigun aurreneko eginkizunak, gure ustez, ECTS kreditu-sistemak dakarren ikasturte akademikoaren iraupen eta kredituen banaketa berria aztertzea garamatza. Hau da, egutegi akademikotik hasita, ikasleen jarduerak, irakasleen eginkizunak, ikasketen eta titulu berrien definizioa eta, oro har, antolakuntza akademikorako eredu berria garatu behar dira.

Lan honi gagozkiolarik, oraingo eredutik abiatuta egokitzapen estatistikorako oinarriak jartzea iruditu zaigu biderik samurrena.

### **Egutegi akademikoa**

Jakina denez, ECTS motako kredituek ikasleen lan-bolumena zehazten dute. Edo, behintzat, hori da kreditu berri horien ernamuina. Horrela, aurrez aurreko eskolak, —orain arteko ohiko eskolak—, lan praktikoak, mintegiak, praktika-aldiak, landa-lanak, —banakoaren lanak liburutegietan edo etxean— eta azterketak edo bestelako ebaluaketa-prozesuak izaten dira unibertsitateko ikasleei dagozkien jarduerak. Eta horiek guztiak egin behar dituzte ikasturtean zehar. Hori guztia antolatu behar da. Esandako horretan izango da egokitzapen-lanik handiena. Ikusmira horretatik, zehazkizun gutxienekoa da ECTS motako ikasturtearen iraupena.

Halere, horretan daukagu abiapuntua: ikasturtearen iraupena ikasturteko 60 kreditukoa da. Kurtso bakoitzeko ikasleak 1600 ikas/lan ordu eman behar ditu, batez beste 40 ordu asteko. Ordu horietan, arestian esan moduan, ikaslearen jarduera guztiak sartzen dira —azterketak barne—. Ikaslearen lanak eta ikasketak-jarduerak, berriz diogu, izango dira ECTS motako kredituak zehaztuko dituztenak.

Oraindik orain, gure ohiko ikasturtearen iraupena, gutxi gorabehera, 40 astekoa da, bi lauhilekotan banaturik. Berrogei aste horietan sartzen dira jarduera akademiko guztiak, aurrez aurreko eskolak, ikaslearen bestelako jarduerak, azterketak eta jarduera osagarriak. Azterketetarako, adibidez, otsaila, ekaina eta iraileko deialdietan 9 aste izaten dira. Psikologia Fakultatean 2004-05 ikasturtean indarrean dagoen egutegi akademikoa, batetik, eta bestetik oraingo irakasgai eta kredituen banaketa —EHAA, 2000ko abuztuaren 24ko ebazpena—, izan dira ECTS kredituetara egokitzeko oinarriak.

Ikasturteak zenbat ordu duen eta orduok nola banatzen diren 2004–05 ikasturtearen egutegi akademikoan azertu dugu.

Darabilgun egutegi akademikoa, bada, nahiko orekatua da, ozta-ozta iristen da 40 asteetako iraupenera. Garrantzitsua da hori aintzat hartzea lan hau ulertzeko. Gogoan izan behar dugu 40 asteko egutegi akademikoa ezarri dugula irizpidea ECTS egokitzapena egiterakoan. Dagokeen diferentzia txikia erraz konpon daiteke. Batetik, azterketak, gehienez, 9 astetara ekarri beharko genituzke (360 ordu), batez beste, 3 aste deialdiko. Bestetik, bai lehenengo eta bai bigarren lauhilekoan egokitzapen txikia egin beharko genuke, egun batzuk gehiago luzatuz. Gogoan izan, 1600 orduko ikasturtea —40 ordu asteko—, eredu berrirako eta lan honetarako irizpide erabiliko dugula.

	HASI	BUKA	ASTEAK	JAIEGUNAK	LARUNBATAK	OPORRAK	AZTERKETAK	ESKOLA-EGUNAK
1. LAUHILEKOA	2004/09/27	2005/01/22	16	25	17	10		70
AZTERKETAK	2005/01/24	2005/02/12	3				14	
2. LAUHILEKOA	2005/02/14	2005/05/31	15	16	17	7		69
AZTERKETAK	2005/06/06	2005/07/02	4				20	
AZTERKETAK	2005/09/01	2005/09/16	2				12	
			40	41	34	17	46	139

1. taula: Psikologia Fakultateko 2004-05 ikasturteko egutegia.

Gauzak horrela, 150 inguruko eskola-eguneko egutegi akademikoa aurreikusi behar dugu, astelehenetik ostiralera.

### ECTS eredura egokitzeko egutegitik eratorritako irizpideak

Lehen esan dugunez, ikasleen jardueretako kurtsoko 1600 ordu horiek (40 ordu asteko) nola bana daitezkeen argitu behar dugu. Gure ustez, egutegi akademikoa muga eta argibidea izan daiteke aldi berean. Aurtengo ikasturteko (2004-05) egutegi akademikoarekin egin dugun ariketa baliagarria da *a priori* ondorengo banaketa proposatzeko.

	ASTEAK	ESKOLA-EGUNAK	ORDUAK
1. LAUHILEKOA	17	75	600
2. LAUHILEKOA	17	75	600
EBALUAKETAK	9	50	400 <sup>1</sup>
	43	200	1600

2. taula: Egutegi akademikoaren banaketa aste, eskola-egun eta ordutan.

Zenbaki horietara iristeko aurreko atalean egindako ariketako datuak erabili ditugu. *Asteak* zutabean, zazpi eguneko aste *errealak* ulertu behar dira; aste horietan gerta daitezkeen jaiegunak eta oporraldiak kendu ditugu eta hortik eratortzen dira *eskola-egunak* zutabean eman ditugun zenbakiak. Azkenik, *orduak* kalkulatzeko 8 ordu eguneko irizpidea erabili dugu; ikusten denez, kalkulu

1. Azterketetarako 360 ordu aurreikusi ditugu, taula honetan agertzen dena (400) zenbakiak doitzeko besterik ez da izan (ikus 6. taula)

horietarako soilik *eskola-egunetako* orduak zenbatu ditugu. Esan dezagun, bide batez, kalkulu guztiak egiteko 31 ikastaldeko datuak erabili ditugula<sup>2</sup>.

Azterketa-garaiei dagokienez, ohiko deialdiak (otsailan eta ekainean) eta ez-ohikoa (irailean) kontuan hartu ditugu.

### Psikologia ikasketetako lehenengo kurtsoaren azterketa

Indarrean dagoen ikasketa-plana abiapuntu harturik, Psikologia ikasketetako lehenengo kurtsoan hamabi irakasgai dauzkagu, seinatutakoak. Irakasgai guztiak nahitaezkoak dira. Irakasgai horien izaera, dagozkien kreditu-kopuruak, eskola-orduak (teoria eta praktika), azterketa-orduak eta *ikaslearen aparteko orduak* oinarritzko aldagai gisa hartu ditugu. Aldagai horiek 2004-05 ikasturteko eskola-egutegiaren eta ordutegiaren arabera aztertu ditugu. Azterketa horretan ikusi ahal izan dugu, oro har, ezarritakoak baino eskola-ordu gutxiago ematen direla. Halere, azterketa honetarako ezarritako irizpideei lotu gatzazkie. Datuak, bada, ondorengo taulara ekarri ditugu. Irakurketa errazteko hamartarrak biribildu ditugu hamarrenkoetara.

	Oraingo kredituak			Ordutan		2004-05 aurrez aurreko orduak				Azterketak (otsaila-ekaina)	IKASLEAREN APARTEKO ORDUAK	Azterketak (iraila)
	Teoria	Praktika	Kredituak	Teoria	Praktika	Teoria	Praktika	GUZTIRA	%			
Datuen azterketa I	5	2,5	7,5	50	25	37,5	18,7	56,2	75	16,7	18,8	13,3
Giza garapenaren ereduak	3	1,5	4,5	30	15	22,5	11,2	33,7	75	10,0	11,3	8,0
Ikaskuntza eta baldintzapena	5	2,5	7,5	50	25	37,5	18,7	56,2	75	16,7	18,8	13,3
Psikobiologiaren oinarriak I	5	2,5	7,5	50	25	37,5	18,7	56,2	75	16,7	18,8	13,3
Psikologiarako sarrera	3	1,5	4,5	30	15	22,5	11,2	33,7	75	10,0	11,3	8,0
Psikologiaren oinarri metodologikoak	3	1,5	4,5	30	15	22,5	11,2	33,7	75	10,0	11,3	8,0
<b>LEHENENGO LAUHILEKOA</b>	<b>24</b>	<b>12</b>	<b>36,0</b>	<b>240</b>	<b>120</b>	<b>180</b>	<b>90</b>	<b>270</b>	<b>75</b>	<b>80</b>	<b>90</b>	<b>64</b>
Arreta eta pertzepzioa	3	1,5	4,5	30	15	22,5	11,2	33,7	75	22,9	11,3	8,0
Etologia	3	1,5	4,5	30	15	22,5	11,2	33,7	75	22,9	11,3	8,0
Ezagutzaren garapena eta mintzairaren eskurapena	3	1,5	4,5	30	15	22,5	11,2	33,7	75	22,9	11,3	8,0
Gizarte Psikologia	6	3	9	60	30	45,0	22,5	67,5	75	45,7	22,5	16,0
Motibazioa eta emozioa	3	1,5	4,5	30	15	22,5	11,2	33,7	75	22,9	11,3	8,0
Psikobiologiaren oinarriak II	3	1,5	4,5	30	15	22,5	11,2	33,7	75	22,9	11,3	8,0
<b>BIGARREN LAUHILEKOA</b>	<b>21</b>	<b>11</b>	<b>31,5</b>	<b>210</b>	<b>105</b>	<b>158</b>	<b>79</b>	<b>236</b>	<b>75</b>	<b>160</b>	<b>79</b>	<b>56</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>45</b>	<b>23</b>	<b>67,5</b>	<b>450</b>	<b>225</b>	<b>338</b>	<b>168</b>	<b>506</b>	<b>75</b>	<b>240</b>	<b>169</b>	<b>120</b>

3. taula: Psikologia ikasketetako 1. kurtsoaren analisia<sup>3</sup>.

2. Psikologia Fakultatean hiru ikastalde daude kurtso 01 eta 02 deiturikoak, gaztelaniaz, eta 31 deitutakoa, euskaraz. Ikastaldeok ikasketa-programa bera badaukate ere, ordutegia aztertutako ordu-kopuru desberdinak izaten dituzte.

3. Irakasgaien euskarazko izendapenei dagokienez, 2004-2005 Irakaskuntza Gidan agertzen diren bezala hartu ditugu.

Taula horretan, irakasgaien izenetik harago, aurreneko bost zutabeetan oraingo kredituen kopuruak eta euren ordaina ordutan agertzen dira. Ondorengo zutabeetan (2004-05 aurrez aurreko orduak), berriz, 2004-05 ikasturteko egutegian eta ordutegian zenbatutako eskola-orduak eta oraingo kredituekiko ehunekoa. Jarraian, egutegiaren arabera finkatutako azterketa-egunak (8 ordu eguneko) proportzionalki banaturik irakasgaien kredituen arabera. Eta, azkenik, *ikaslearen aparteko orduak* izenburupeko zutabeen kredituetako ordu-balioak osatzeko ikasleak bera-riazko jardueretan eman beharreko ordu-kopurua; irakasgaiari dagozkion kredituen arabera orduak eta irakasleak aurrez aurre emandako orduen arteko kendura, alegia.

Egutegia eta ordutegia ezartzerakoan lauhilekoko 15na eskola-aste programatzen dira, bost eskola-egun asteko, 75 eskola-egun, beraz. Guk egindako eskola-egunen zenbaketan, ordea, 70 eta 69 eskola-egun atera zaizkigu. Aurreikusitako 150 eskola-egunetatik batzuk galtzen dira, beraz. Eskola-egun horien galera proportzionalki banatu dugu lauhilekoetako irakasgai guztien artean jaiegunen eragina astegunetan uniformeki banatzen dela suposatuz. Urratsez urrats azalduta, irakasgai bakoitzeko asteko ordutegian jarritako eskola-ordu teorikoak eta praktikei dagozkien orduak zenbatu ditugu eta ondorengo haztapenak ezarri:

Non:  $W_i$  zuzenketarako haztapena  
 $Y_i$  lauhilekoko zenbatutako eskola-egunen kopurua  
 75 hamabost eskola-asteko eskola-egunen kopurua

Horrela, 0,93 eta 0,92 haztapen-neurriak erabili ditugu, hurrenez hurren, lehenengo eta bigarren lauhilekoetan.

Azalpen xume horiek emanda gatoz, berriro, 3. taularen interpretaziora. Taula horretatik zenbait ondorio atera daiteke. Dazkagun datuetatik abiatuz, oraingo kreditu-kopuruaren banaketa aurrez aurreko eskolen eta ikasleen berezko jardueren arabera, eta teoria eta praktikaren arteko ratioa kalkulatu ditugu.

		%	%	Teoria/ praktika
Aurrez aurreko eskolak	Ohiko eskolak (teoria)	50,0	74,9	2
	Praktikak	24,9		
Ikaslearen jarduerak		25,1	25,1	
		100,0		

**4. taula: Oraingo kreditu-kopuruaren banaketa eta teoria/praktika ratioa.**

Taula honetatik, behatutako teoria/praktika ratioa interesatzen zaigu. Oro har, praktika-ordu bakoitzeko ikasleak teoriarako halako bi jasotzen ditu. Datu horri gerora helduko diogu ikasleak teoria eta praktika ikasteko (edo lantzeko) eman behar dituen orduak kalkulatzeko.

Jakina denez, ikasturteak, bi lauhilekoak eta beraiei dagozkien azterketa-deialdiak, esandako irizpideen baitan 746 ordu dakar, hori, gogoan izan, 2004-05 ikasturteko egutegi/ordutegiaren azterketaren arabera. Lehen egin dugun eran, ordu horiek, ikasleak eman beharreko orduak eta azterketetarako orduak aintzat harturik (8 ordu azterketa-eguneko), beste aldetik, honela banatzen dira:

Aurrez aurreko eskolak	Ohiko eskolak (teoria)	36,9	<b>55,3</b>
	Praktikak	18,4	
Ikaslearen jarduerak		18,5	<b>18,5</b>
Azterketak		26,2	<b>26,2</b>
		100,0	

#### 5. taula: Denbora akademikoaren banaketa azterketetarako denbora barne.

Gogorarazi nahi dugu erabiltzen ditugun irizpideek mugatzen dutela ordu-kopurua, eta *ikasleen aparteko orduak* deitu dugun hori kredituen ordu-ordainen arabera kalkulatu dugula. Halere, banaketa horrek ondo isla dezake, gure ustez, indarrean dagoen eredian aurrez aurreko eskolek daukaten pisua eta garrantzia.

### ECTS eredurako egokitzapena

Azterlan honetarako egutegi/ordutegi akademikoa hartu da abiapuntu eta hori, salbuespenak salbuespen, aldagaitza da kurtso eta ikasle guztientzat. Lehenengo kurtsoko azterketatik eratorri nahiko genuke oraingo kredituen eta ECTS motako kredituen arteko baliokidetzarako algoritmoa

Eginkizun horretarako oinarri gisa hirugarren taulan agertutako datuak, 2004-05 ikasturtean emandako eskola-orduak, hartu ditugu. Alde batetik, badakigu 1.600 orduko egutegira egokitu behar dugula. Beste alde batetik, ikasleak, edozein ikasle, bere kabuz teoria eta praktika ikasteko (lantzeko) ordu-kopuru jakinak eman beharko ditu. Eta, azkenik, azterketetarako, kurtsoan zehar hiru deialditan dagokion denbora ere eman behar izango du.

Horiek horrela, ikasleak ikasten (lantzen) eman behar dituen orduak kalkulatzeko irakasleak aurrez aurre ematen dion teoria-ordu bakoitzeko 1,5eko haztapena eta praktika-orduko 0,75eko haztapena erabili nahi izan ditugu. Haztapan horiek erabiltzeko bi arrazoi darabiltzagu nagusiki. Batetik, erabili izan ditugun erreferentzietan horiek izan direlako erabilienak eta, bestetik, Psikologia Fakultatean teoria/praktika ratio enpirikoa 2 delako (ikus 4. taula). Hau da, eskolak hartzean ikasleak praktika-orduko teoriako halako bi jasotzen badu logikoa da pentsatzea ikasteen (edo lantzean) proportzio berean eman behar izango duela. Hala ere, 1.600 orduko egutegira ahalik eta gehien hurbiltzeko haztapan horiek zertxobait emendatu ditugu, 1,7 teoriarako eta 0,85 praktikarako, hain zuzen ere. Teoria/praktika ratio bera darabilgu, 2, baina haztapan-neurri horiek baino handiagoak jartzeak 1.600 orduko egutegitik harago eramango gintuzke.

Esandakoaz aparte ez dugu inolako aldaketarik egingo 2004-05 ikasturtean zehar ematen diren aurrez aurreko eskola-ordu kopuruetan. Horrek esan nahi du

egutegi akademiko luzeagoan eskola-orduen banaketa zabalagoa dela. Aurreko kasuetan egindakoaren moduan, kalkuluetarako zenbaki osoak erabiliko ditugu. Horrela, irizpide horietan oinarriturik, ondorengo taula eraiki dugu:

	Teoria	Praktika	TEORIA IKAS/LANV	PRAKTIKA IKAS/LAN	AZTERKETAK	GUZTIRA
Datuen azterketa I	38	19	64	16	30	166
Giza garapenaren ereduak	23	11	38	10	18	99
Ikaskuntza eta baldintzapena	38	19	64	16	30	166
Psikobiologiaren oinarriak I	38	19	64	16	30	166
Psikologiarako sarrera	23	11	38	10	18	99
Psikologiaren oinarri metodologikoak	23	11	38	10	18	99
<b>LEHENENGO LAUHILEKOA</b>	<b>180</b>	<b>90</b>	<b>306</b>	<b>76</b>	<b>144</b>	<b>796</b>
Arreta eta pertzepzioa	23	11	38	10	31	112
Etologia	23	11	38	10	31	112
Ezagutzaren garapena eta mintzairaren eskurapena	23	11	38	10	31	112
Gizarte Psikologia	45	23	77	19	62	225
Motibazioa eta emozioa	23	11	38	10	31	112
Psikobiologiaren oinarriak II	23	11	38	10	31	112
<b>BIGARREN LAUHILEKOA</b>	<b>158</b>	<b>79</b>	<b>268</b>	<b>67</b>	<b>216</b>	<b>786</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>338</b>	<b>168</b>	<b>574</b>	<b>143</b>	<b>360</b>	<b>1582</b>

**6. taula: ECTS motako egutegirako hurbilpena.**

Ikusten denez, egutegi akademikoaren doikuntza egitea ECTS eredurako ego-kitzapena lortzeko aurreneko urratsa da. Guztiz doitzeko, ikasturteko 1.582 ordutik 1.600 ordura igarotzeko, ECTS motako 60 kredituak nola banatzen diren kalkulatu dugu. Irakasgai bakoitzeko geratzen zitzaizkigun ordu-hondarrak, goitik behetik, azterketa-denborari gehitu dizkiogu, horregatik, hain justu, gaintitzen da aurreikusita genuen 360 orduko kopurua. Horrela egin dugu doikuntza, modurik partsimoniotsuena iruditu zaigulako. Emaitzak, zazpigarren taulan ikus daitezke:



Kreditu Europarrarekiko Egokitzapen Sistema (ECTS)

	Teoria	Praktika	TEORIA IKAS/LAN	PRAKTIKA IKAS/LAN	AZTERKETAK	GUZTIRA	Kreditu ECTS	Kreditu bakoitza ordutan
Datuen azterketa I	38	19	64	16	35	171	6,4	26,7
Giza garapenaren ereduak	23	11	38	10	28	109	4,1	26,7
Ikaskuntza eta baldintzapena	38	19	64	16	35	171	6,4	26,7
Psikobiologiaren oinarriak I	38	19	64	16	35	171	6,4	26,7
Psikologiarako sarrera	23	11	38	10	28	109	4,1	26,7
Psikologiaren oinarri metodologikoak	23	11	38	10	28	109	4,1	26,7
<b>LEHENENGO LAUHILEKOA</b>	<b>180</b>	<b>90</b>	<b>306</b>	<b>76</b>	<b>188</b>	<b>840</b>	<b>31,5</b>	26,7

Arreta eta pertzepzioa	23	11	38	10	28	109	4,1	26,7
Etologia	23	11	38	10	28	109	4,1	26,7
Ezagutzaren garapena eta mintzairaren eskurapena	23	11	38	10	28	109	4,1	26,7
Gizarte Psikologia	45	23	77	19	50	213	8,0	26,7
Motibazioa eta emozioa	23	11	38	10	28	109	4,1	26,7
Psikobiologiaren oinarriak II	23	11	38	10	28	109	4,1	26,7
<b>BIGAREN LAUHILEKOA</b>	<b>158</b>	<b>79</b>	<b>268</b>	<b>67</b>	<b>190</b>	<b>760</b>	<b>28,5</b>	26,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>338</b>	<b>168</b>	<b>574</b>	<b>143</b>	<b>378</b>	<b>1600</b>	<b>60,0</b>	26,7

7. taula: ECTS motako kredituetarako egokitzapena.

ECTS eredurako egokitzapen estatistikoak, bada, ez du arazo handirik ekarri. Uste genuena baino errazagoa izan da, egia esan. Halere, kontuan hartu behar dugu lehenengo kurtsokoarena besterik ez dugula egin eta, kurtsu hori, hain zuzen berezia da.

Edozelan ere, errazena egin dugu; egutegi akademikoa egokitu eta horren baitan ECTS eredurako orduen banaketa atondu. Aldaketa horiek, txikiak izanik ere, ikasleen ordu-banaketa iraultza dakarte. Ikus dezagun:

Aurrez aurreko eskolak	Ohiko eskolak (teoria)	21	32
	Praktikak	11	
Ikaslearen jarduerak	Teoria	36	45
	Praktika	9	
Azterketak	Prestaketa-lanak	23	23
		100,0	

8. taula: Denbora akademikoaren banaketa ECTS ereduaren arabera.

Bagenekien jakin, baina datuek horrela berresten dute: *ikasleen jarduerak* izango dira aurrerantzean ikasturte akademikoaren egituraren ardatza. Horrek, jakina, eragin esanguratsuak ekarriko ditu irakasleen dedikazioan, lan-banaketan eta, oro har, antolakuntza akademikoan.

### Psikologia titulazioko irakasgaien egokitzapena kreditu-kopuruen arabera

Lehenengo kurtsoko irakasgaien azterketatik eratorrita Psikologia Fakultatean kreditu-kopuru desberdinetako asignaturen egokitzapena egin dugu.

Oraingo kredituak	Ikasleen jarduerak		Teoria		Praktika		Azterketak	Orduak guztira	ECTS motako kredituak
	Teoria	Praktika	Teoria	Praktika	Teoria	Praktika			
4,5	23	12	39	10	25	109	4,1		
6,0	31	16	53	13	34	147	5,5		
7,5	36	18	61	16	39	171	6,4		
8,0	41	21	69	18	44	192	7,2		
9,0	45	23	77	20	49	213	8,0		
<b>Guztira</b>	<b>176</b>	<b>90</b>	<b>299</b>	<b>76</b>	<b>191</b>	<b>832</b>			
<b>Ehunekotan</b>	21,1	10,8	35,9	9,2	23,0	100,0			
<b>Kreditu batek</b>	<b>5,6</b>	<b>2,9</b>	<b>9,6</b>	<b>2,5</b>	<b>6,1</b>	<b>26,7</b>			

9. taula: Irakasgai bakoitzaren kredituak eta orduen banaketa ECTS ereduaren arabera.

Aztertutakoaren argitan ez dago oraingo kredituen eta ECTS motako kredituen arteko baliokidetza zuzenik, doikuntza horretan irakasgaien tamainak eragiten du eta. Irakasgaiaren oraingo kredituak zenbat eta gehiago izan, orduan eta handiago da murrizketa ECTS motako kredituetan. Joera estatistiko hori, beste alderditik, espero zitekeena da.

Ez dugu uste egindako urrats horietan oker esanguratsurik dagoenik. Arazoa da, gure ustez, orain artean aztertutakoa nola ezar daitekeen edo atera ditugun ondorioek zer-nolako aldaketak dakartzaten Psikologiaren ikasketa osoan. Horri lotuko gaitzaizkio hurrengo orrialdeotan.


### Psikologia ikasketen osotasunezko azterketa

Hipotesirik gertagarriena Psikologiaren graduko ikasketetarako lau urteko iraupenari dagokiona da. Hau da, 240 ECTS motako kredituak, 60 kreditu ikasturteko. Molde horietara egokitu behar izango dugu Psikologiaren graduko ikasketa-plana. Hori horrela, aurreko ataletan erabili dugun prozedura bera erabiliko dugu. Aurrenik, orain dagoena aztertu eta esandako moldeetarako egokitzapenik sinpleena bilatu. Hurrengo taulan Psikologia ikasketen kredituen banaketa aurkezten dizuegu:

	MAILA	Enborreko eta derrigorrezko irakasgaiak	Hautazko irakasgaiak	Aukera askeko kredituak	Karrera amaierako proiektua edo lana	GUZTIRA
	1. ZIKLOA	1.	67,5	---	---	---
2.		62,5	12	---	---	74,5
3.		24,5	24,5	8	---	57
4.		43,5	---	---	---	43,5
5.		34	---	---	---	34
2. ZIKLOA	Maila zehaztugabea	---	39,5	27	---	66,5
GUZTIRA		232	76	35	---	343

10. taula: Psikologia ikasketetako kredituen banaketa<sup>4</sup>.

Arreta dakarren aurreneko ezaugarria *guztirako* kredituen banaketa uniformeaz ez izatea da (ikus 1. irudia). Hau da, itxuraz kurtsorik kurtsorik metatu beharreko kredituak desberdinak dira mailaz maila igo ahala. Hau, printzipioz, ezin gerta daiteke ECTS motako kredituekin.



1. irudia: Psikologia ikasketetako kredituak kurtsoz kurtsorik.

ECTS eredurako egokitzapena egiteko saiakeran lehenengo kurtsoarekin egin dugun azterketa hartu dugu abiapuntu. Hortik aurrera, irakasgai bakoitzari dagokion ECTS motako kreditu-kopuruaren irizpidea erabili dugu oinarri moduan (ikus 9. taula). Horrez gainera, hautazko irakasgaien multzoari dagokionez, maila bakoitzean ikasleak hauta lezakeen *gehienezko* irakasgai-kopurua mugatu dugu, iraupen laburreneko (4,1 kreditu) irakasgaiak izan daitezkeelakoan. Bigarren kurtsorako, ostera, hautazko irakasgaien kopurua berez finkatuta dago, hortik aurrera:

4. 2004-2005 Irakaskuntza Gida deritzan argitalpenetik hartua.

3. mailarako *gehienezko* hautazko irakasgaien kopurua 4

Maila zehaztugabeen *gehienezko* hautazko irakasgaien kopurua 9

Bosgarren mailako kredituen egokitzapenerako irakasgai luzeenari dagozkion kredituen (9 kreditu) eta ECTS motako kredituen (8 kreditu) arteko proportzioa erabili dugu. Eta, azkenik, kreditu askeen kopurua bere horretan utzi dugu, inolako egokitzapenik egin barik. Irizpide guztiak, jakina, aldagarriak izan daitezke. Simulazio honetarako horiek aukeratu izanaren arrazoia, lehenengo kurtsokoaren azterketatik harago, sinpletasun- eta gardentasun-printzipioan datza.

Horiek horrela, oraingo egitura ECTS motako kredituetara egokituz gero, honela geratuko litzateke:

	MAILA	Enborreko eta derrigorrezko irakasgaiak	Hautazko irakasgaiak	Aukera askeko kredituak	Karrera amaierako proiektua edo lana	GUZTIRA
1. ZIKLOA	1.	60,0	---	---	---	60,0
	2.	64,7	11,9 <sup>5</sup>	---	---	76,6
	3.	17,7	24,6	8	---	50,3
2. ZIKLOA	4.	37,8	---	---	---	37,8
	5.	30,2	---	---	---	30,2
	Maila zehaztugabea	---	36,9	27	---	63,9
	<b>GUZTIRA</b>	210,4	73,4	35,0	---	318,8

11. taula: Psikologiako ikasketen ECTS eredurako simulazioa.

Gauzak horrela, eta prozedurari dagozkion ohar guztiak gogoan harturik, oraingo eredia ECTS eredura egokituz gero —lau kurtsoko ikasketak, 240 kreditu—, gaur egun dagoen irakaskuntza kargatik %33, gutxi gorabehera, ezin eman liteke. Enborreko eta derrigorrezko irakasgaietan, berriz, aipatu eredu horren baitan egon litezke kredituak, baina, jakina, hautazko irakasgaien eta aukera askeko kredituen kaltetan.

Psikologia graduko ikasketak nolakoak izango diren erabakitzeke dago. Zenbat kurtsoetako ikasketak antolatu behar diren eztabaidagaia dela jakinik, 4 ikasturtekoarena behin-behineko hipotesi gisa harturik, *hautazkotasun*-maila eta enborreko eta derrigorrezko kredituen banaketa berregokitu behar direla uste dugu. Gure ustez, azken horrek, enborreko eta derrigorrezko kredituen banaketak, uniformeagoa izan beharko luke orain dena baino. Alegia, —lau ikasturteko egituran—, lehenengo kurtsoetan, batik bat bigarrenean, kreditu-kopuru horiek murriztu beharko liriteke 3. eta 4. kurtsoetan banatzeko. Nolanahi ere, beti gure ustez, Psikologia graduko ikasketetako ECTS ereduan *hautazkotasun*-maila orain baino nabarmen txikiagoa izan beharko litzateke egokitzapen estatistikoaren ikuspegitik. Ideia hori

5. Kreditu-kopuru hori bi irakasgaiei dagokie, horietako bat *Euskara Teknikoa* da. Hiru irakasgai izanez gero (4,1 kreditukoak), kredituen baturak 12,3 beharko luke; kasu honetan, ordea, iraupen luzeagoko irakasgaiak dira. Berezitasun horiek direla eta, bere horretan uztea erabaki dugu.

azpimarratu nahiko genuke, hain zuzen ere, egokitzapen estatistikoaz ari garela eta ez egokitzapen akademikoaz. Irizpide akademikoak edo kurrikularrak erabiliz gero, ondorioak oso bestelakoak izan baititezkeen.

Argi dago, ECTS ereduan antolakuntza akademikoaren ikuspegitik molde zurrungoak erabiltzen direla gaur egun erabiltzen ditugunekin alderaturik. Antolakuntzaren alderdi formalak, bete beharreko ordu-kopuruak, batez ere, eta jarduera akademikoaren eraketa, oro har, askoz hertsiagoak izango dira. Ez da izango orain dagoen malgutasuna, ez ikasturtea antolatzerakoan, ez ikasleen jarduerak gidatzerakoan ezta irakasleen dedikazioa eta eginkizunak zehazterakoan ere.

Kreditu europarraren ezarpenak ikasleriaren jardueretan dakar aldaketarik esanguratsuenak. Hori iradokitzen da aztertu dugun dokumentu gehienetan eta hori ere antzematen da egin dugun azterketa honetan. Oraingo kredituak irakasleen eginkizunetan oinarrituta dauden bitartean, kreditu europarrak ikasleen jardueretan zentratutakoak izango dira. Ezaugarri horrek, hain zuzen ere, egin beharreko egokitzapenen ildo nagusiak agerian uzten ditu. Irakasleriaren beharrak, eginkizunak eta antolaketa-ereduak horren arabera izan beharko dira, beraz. Hori horrela, egutegi akademikoa, behar diren baliabideak eta indarrean jarri behar diren zerbitzu berriak, batez ere, informazio- eta komunikazio-teknologiaren alorrean, egokitu eta garatu behar izango dira. Nolanahi ere, ECTS motako kredituak indarrean jartzeak ekar ditzakeen aldaketa nabarmenenak agerian utzi nahi izan ditugu, ezagutza horrek ondorengo lanak errazago antolatzeko aukera eman diezagukeela baiteritzogu.

### **Dokumentu aipagarriak**

*ECTS Guía del Usuario*. Comisión Europea, 1998.  
<http://europa.eu.int/comm/education/socrates>

*Guía de la Titulación de la UAL (Universidad de Almería)* (2004), Txostena.

*Tuning Educational Structures in Europe* (2003), Universidad de Deusto. Deustu.

UPV-EHUko Psikologia Fakultateko 04-05 Irakaskuntza Gida.

